

2030

Azkenean, 2018an Ipar Korea-tik jauzitako misil nuklearrak Japonia jo zuen bete-betean, izan ere, Ameriketako Estatu Batuetatik igorritako kontramisilak Japoniaren gainean lehertu zuen misil korearra, eta erradioaktibitatea lur-eremu oso zabalean barreiatu zuen. Donald Trump presidente estatubatuarrek Ipar Korea txikitu bazuen ere, orduz geroztik inguruko estatu guztiak, Txina barne, amaiezina dirudien gerran murgilduta daude. Honen eraginez, 2007tik 2017 bitartean izandako krisi ekonomikoa huskeria da orain jasaten ari garenarekin alderatuta.

2017ko udan Mariano Rajoyren gobernuak Garoña eta beste hainbat zentralen funtzionamendu aldia luzatu zuen, eta horretarako baldintza ekonomikoak eta funtzionalak izugarri arindu zituen, Iberdrolak ere irekitzearen alde egin zuen. Aurrekari hori Espainiako gainerako zentralak irekita mantentzeko erabili zen, baina Europan eta munduan ere bide berari jarraitu zitzaion; 2020ko hamarkadan dozenaka izan dira zentralak izandako istripuak, baina zorionez, guk dakigula, Garoñan ez da gorabehera handirik izan.

2021ean Wikileaksek argitara eman-dako informazioak Europako gizarte



Joxerra Aizpurua
INGENIARI INDUSTRIALA

Rajoy, Macron eta Europako gainerako buruzagiek isilpeko hitzarmena sinatu zuten zentral nuklearrak irekita mantendu behar zirela adieraziz

osoa asaldatu zuen. Antza, Rajoy, Macron eta Europako gainerako buruzagiek isilpeko hitzarmena sinatu zuten zentral nuklearrak irekita mantendu behar zirela adieraziz; erabaki horren atzean arrazoi ekonomikoak baino gehiago, arrazoi zientifikoak omen zeuden, hala nola, zientzia ez zela gai fisio prozesu bati amaiera emateko, eta horren ondorioz, zentral etako gunek desmunta

ezinak lirakeenez, estaltzea (hau da, mendi artifizial bat egitea) baino ez litzateke geratuko. Artean, gogoratu beharra dago jada arazo larriak zeudela hondakin nuklearrekin, agintariek ez baitzekiten non gorde eta nola tratatu.

2023an Frantzia eta Alemanian zentral batzuk ixten hasi ziren, oso garbi adierazi gabe zer egin ote zieten hondakin nuklear horiei. Ipar Ameriketako unibertsitate baten ikerketa bati esker, duela bizpahiru urte jakin genuen AEBk eta Europako hainbat estatuk urteak daramatzatela hondakin nuklearrak satellite bidez espaziora bidaltzen. Berri honek, gori-gorian jarri zituen jada oso aldrebestuta zeuden mundu osoko estatuen arteko harremanak, eta XX. mendearan amaieran estatu askotan soldadutza kendu bazuten ere, bizi dugun aro honetan atzera egin eta derri gorrezko bilakatu da neska-mutilentzat, baita Euskal Herrian ere.

2028an alde egin genuen Euskal Herriatik eta Guatemalako maien artean bizi gara ia 4.000 euskaldun. Mundua nola dagoen ikusita, ez gaude gaizki, zer jana eta zer edana baititugu. Gure umeak bertakotu dira eta euskara -maia-espainola nahasirik dituen kreolera moduko bat hitz egiten dute.

Iraun baino ez dugu nahi. ■

Uda euskaraz helduentzat!

ekainetik aurrera
Bakaikun eta Bilbo erdian

Gabriel Aresti
euskaltegia

- Batxilergoko ikasleentzako aukerak
- Mintzamena eta azterketak prestatzeko ikastaroak eta barnebegiak
- Autoikaskuntza...

www.gabrielaresti.com